

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko UZTAILAREN 26ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko uztailaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Felix Joaquin Asensio Robles
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bilkura honetara ez dira bertaratzen: Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre eta Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko uztailaren 5ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 5 de julio de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2018ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica correspondiente al 3. y 4. Trimestre del 2018 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.**
- 4. Kultur etxea eta Udaletxearen garbiketa zerbitzuaren esleipena, hala bada./ Adjudicación del servicio de limpieza de la Kultur etxea y Ayuntamiento.**
- 5. Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada./Adjudicación del servicio de urbanismo y arquitectura al Ayuntamiento de Larraul.**
- 6. Olatza baserrira doan herri bidearen konponketa lanen ordainketa, hala bada/Pago de los trabajos de arreglo del camino público de acceso al Caserío Olatza.**
- 7. Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanen esleipena, hala bada/ Adjudicación de los trabajos de ejecución de la obra “Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa”.**
- 8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Beste batzuk/Otros.

10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2018 urteko uztailaren 5ean Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

15//2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 22koa, non onesten den 2018-KALD-000002 Kreditu aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.

16/2018 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 12koa, non 2018ko 2. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten den.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2018KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko uztailaren 4ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2018 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 14.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 9.000,00 euro


-Kultura: 5.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2018 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2018 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2018 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 9.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

LAUGARREN PUNTUA

KULTUR ETXEA ETA UDALETXEAREN GARBIKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2013/2014 ikasturterako kultur etxearen garbiketa zerbitzua Larraulgo Udalak bere gain hartu zuela, Larraulgo Guraso Elkarteak jakitera eman zutenez, ez zutela jarraitu behar zerbitzu hau eskaintzen.

Ikusirik, ordutik hona, garbitasun zerbitzua, kontratu bidez esleitua izan dela.

Ikusirik, 2018/2019 ikasturterako udal eraikinen garbitasun kontratua esleitu ahal izateko Zu eta Biok enpresari eskatu zaiola aurrekontua, kontratu txiki bat delako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Zu eta biok enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, esleipena 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31rarte izango da, ondorengo lanak egiteko aurkezturiko aurrekontua (orduak irailean zehaztuko dira, eraikinak izango duten erabilera, orduan finkatuko delako):

Garbiketa:

Kultur etxea: Egunero 1.5 ordu (0.5+1)

Udala: Astean 1.5ordu


Orduko prezioa: 23,05euro (BEZ barne)

Eraikin bakoitzean kristalak garbitzeko bi ordu eta erdi beharko dira, proposamena Udaletxea urtean behin eta Kultur etxea urtean bi aldiz.

Orduko prezioa: 23,05euro (BEZ barne)

BIGARRENA:Zu eta biok enpresari jakinaraztea, Udalaren esku egongo dela, garbitasunari buruz kezak badaude edo fakturarekin adostasun faltak sortzen badira, edozein momentutan kontratua moztu ahal izango duela, inolako kalte-ordainik gabe.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Zu eta Biok enpresari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA

Gotzon Jauregi zinegotziak puntu honetan adierazten du, Cristian Pizarro eta Ander Leon zinegotziak Udalbatza honetan ez daudenez, gaia mahai gainean uztea. Bertaratutako guztiek adosten dutelarik.

Beraz, gaia, mahai gainean uzten da.

SEIGARREN PUNTUA

OLATZA BASERRIRA DOAN HERRI BIDEAREN KONPONKETA LANEN ORDAINKETA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko apirilaren 12an egindako Udalbatzarrean, Larraulgo Iturtasarobe-Olatza bidea konpontzeko lanen esleipena OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK S.L. enpresari esleitu zitzaiola, 33.780 euroko aurrekontu batekin.

Ikusirik aipaturiko lanak amaitu direla, udal Aholkulari teknikoak bere oniritzia emanik, dagokion faktura aurkeztu da, bere zenbatekoa 33.780,00 euro + 7.093,80 euro (BEZ) delarik. Guztira, 40.873,80 euro.

Ikusirik, aipaturiko gastua ordaintzeko 2018ko udal aurrekontuetako 601.153.20.01 partidaren nahiko diru aurreikusi dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. aurkezturiko 1002018 faktura onestea, bere zenbatekoa 40.873,80 euro direlarik.

BIGARRENGOA.- 40.873,80 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa egin dadin agintzea, udal aurrekontuetako 601.153.20.01 partidaren kargura.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO PLAZATIK AIZE ETA ZEKEN BAILARARA DOAN BIDEAREN KONPONKETA LANEN ESLEIPENERAKO LIZITAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak, Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanak egin behar dituela, egoera kaskarrean aurkitzen delako, horretarako Udal Aholkulari teknikoak dagokion egitasmoa prestatu du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidearen konponketa lanen aurrekontua 39.016,55 eurokoa dela, hau da, kontratu txiki bat.

Kontutan izanik, Larraulgo udalak asmoa agertu zuela, hainbat enpresei bere gonbidapena luzatzeko. Enpresak ondorengoak izanik: Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.; Asfaltos Urretxu, S.A.; Landa e Imaz, S.A.; Bixente Otegi Lizaso, S.L.; Sasoi eraikuntzak, S.L.; Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak, S.L. eta Murgil Eraikuntzak, S.L.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapena, Landa inguruneko eta Lurralde Oreko departamentuak, aipaturiko lanak egiteko 33.047,02 eurotako diru-laguntza esleitu diola Larraulgo Udalari.

Ikusirik, aipaturiko enpresei gonbidapena bidali zitzaizela, euren proposamenak sobre itxian aurkezteko, uztailaren 24a izanik hauek aurkezteko azken eguna. Sobren irekiera uztailaren 26an eguerdiko 13.00 orduetan egingo zelarik. Gonbidapenetan aipatzen zen, lanak, abuztuaren 27tik irailaren 14ra bitartean gauzatu behar zirela.

Ikusirik, Asfaltos Urretxu eta Sasoi eraikuntzak idazkaritza honi jakinarazi ziotela aipaturiko lanak ezin izango zituela eskatutako epean egin, beraz proposamenik ez zutela aurkeztuko.


Ikusirik, uztailaren 24ean Excavaciones y Transportes Orsa, S.L., Bixente Otegi Lizaso, S.L., Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak, S.L. Murgil Eraikuntzak, S.L. enpresek euren proposamenak aurkeztu zituztela.

Ikusirik, uztailaren 26an, aipaturiko enpresen proposamenen irekitzea egin dela eguerdiko 13.00 orduetan, ondorengoak izanik:

-MURGIL ERAIKUNTZAK:	72.931,83 euro
-OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK:	61.461,22 euro
-EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA:	47.163,22 euro
-BIXENTE OTEGI LIZASO:	43.523,52 euro

Udal Aholkulari teknikoak aipaturiko proposamenak azterturik, Bixente Otegi Lizaso enpresak aurkezturiko proposamena prezioz egokiena eta baldintza guztiak betetzen dituela ziurtaturik, Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidea konpontzeko lanak BIXENTE OTEGI LIZASO enpresari esleitzeko proposamena egiten du.

Ikusirik, lan hauen gastua finantzatzeko, 2018ko udal aurrekontuetako 601.153.20.02 partidan adina diru aurreikusi dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Larraulgo Plazatik Aize eta Zeken bailarara doan bidea konpontzeko lanak BIXENTE OTEGI LIZASO enpresari esleitzeko onespena ematea, 43.523,52 eurotako diru-kopuruan (BEZ barne). Lanak abuztuaren 27tik irailaren 14ra bitartean egingo direlarik.

BIGARRENA: 43.523,52 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 601.153.20.02 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Erabaki hau, Excavaciones y Transportes Orsa, S.L.; Asfaltos Urretxu, S.A; Landa e Imaz, S.A.; Bixente Otegi Lizaso, S.L.; Sasoi eraikuntzak, S.L.; Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak, S.L. eta Murgil Eraikuntzak, S.L.- enpresei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**


Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KATILLU TXULO ELKARTEA	135,12
ARANZADI	300,00
BASAJAUN LIBURUDENDA	72,95
IBERDROLA	138,48
ASTEASUKO UDALA	716,58
ASTEASUKO UDALA	716,58
IBERDROLA	96,45
CORREOS	1,78
ULAHI	392,98
BELARMENDI	406,56
KATILLU TXULO ELKARTEA	35,65
BERRI LANTEGIA	119,00
CONSTRUCCIONES ALZOLA	296,45
INFOBIBLIOTECAS	118,46
JOSE ANTONIO ALTUNA. TELEFONO BERRIA	115,58

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.662,62** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREM PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. LARRAULGO KULTURA BATZORDEAREN ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Larraulgo Kultura Batzordeak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Larraulgo San Esteban jaietarako urtero jarri ohi den txosna dela eta, proposamen berri batekin gatozkizue Larraulgo Kultura Batzordetik.

Herriko jai giroari ekarpena eginez, ohikoa da txosna jartzea herriko plazan. Aurten ikusirik Herri Ostatua hutsik dagoela, beronen erabilera egitea litzakeela egokiena iruditu zaigu. Hori dela eta, Larraulgo Kultura Batzordearen izenean, Herri Ostatuaren taberna erabiltzeko baimena eskatzen dut.

Erabilera jaiak irauten duten egunetarako soilik izango litzateke, hau da, abuztuaren 2tik 5era, biak barne. Garbiketa Kultura Batzordearen esku geratuko litzateke.

Gure eskaera onartua izango delakoan,

Mila esker,”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Larraulgo Kultura Batzordeak eginiko eskaera onestea, hau da, abuztuaren 2tik 5era, biak barne, Herri Ostatuko taberna erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Kultura Batzordeari jakinaraztea, garbitasunaren kargu eurek egin beharko dutela.

HIRUGARRENA: Larraulgo Kultura Batzordeari jakinaraztea, Herri Ostatuko, tresna, altzari etb..... gaur egun dauden bezala utzi beharko dituztela.

HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA